

2018ko UZTAILAREN 26an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **7 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2018ko uztailaren 26an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Naiara Carvajal Larrañaga and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2018ko EKAINAREN 28ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2018ko ekainaren 20tik uztailaren 20ra.

Segidan, Alkatezak 2018ko ekainaren 20tik uztailaren 20ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2018ko ekainaren 22tik uztailaren 16ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 22tik uztailaren 16ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- INFORMAZIOA FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2018ko 2. hiruhilekoa

Udalbatzak jakin berri du 2018ko bigarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- INFORMAZIOA ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2018ko 2. hiruhilekoa

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2018ko bigarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- 2017ko KONTU OROKORRA ONARTZEA.

2018D2000009 espedientea

2018ko maiatzaren 17an egindako bileran, Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman zion 2017. ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Kontu Orokorra jendaurrean egon zen, 15 eguneko epean, 2018ko maiatzaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (102 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez; eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

Udaleko Kontuen Batzorde Berezian, 2018ko uztailaren 12an egindako bileran, 2017. ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorraren berri ematen da.

Horrenbestez, aipatutako batzordeak hala proposatuta Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Zarauzko Udalaren 2017. urteko Kontu Orokorra onartzea eta, halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea.

7.- 2017ko GASTUAK 2018ko AURREKONTUAN TXERTATZEA.

2018DDDD0002 espedientea

2017. ekitaldiko aurrekontua likidatu ondoren 2017. ekitaldian onartuak izan behar ziren gastuak kontabilizatu gabe gelditu dira:

Hornitzailea	Azalpena	Data	Kopurua
IRAGAZ WATIN, S.A.	Urria-2017. Zarauzko udal mugapean estolda-sarea garbitzea	2017-10-31	7.276,50 €
BOJO BALLESTER, PEPA	2017ko urritik abendura. Laguntza eta esku-hartze psikosozialeko programa garatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa.	2017-12-13	940,40 €
MENSAJERIA ALBARRETXE SL	Garraio zerbitzua	2017-11-30	8,63 €
GUZTIRA:			8.225,53 €

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 34. artikuluan ezarritakoa beteaz, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

2017. ekitaldiko gastuak, 8.225,53 euroko zenbatekoaz, 2018ko ekitaldiko aurrekontuan txertatzea onartzea.

8.- HIRIGINTZAKO LANKIDETZA-HITZARMENA, LANPARDO KALEA 1EKO PARTZELAN (7 AREA –OD AZKEN PORTU–) ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA SOZIALAK ERAIKITZEKO.

2018H7000005 espedientea

Alkatetzaren 2018ko maiatzaren 17ko 0721 Dekretuaren bidez, Zarauzko Udalak erabaki zuen jendaurrean jartzea Lanpardo kalea 1eko partzelan (7. area –OD Azken Portu–) alokairuko etxebizitza sozialak eraikitzeke Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztutako hirigintzako lankidetzahitzarmenaren proposamena.

Udalaren jabetzakoa den partzela bat Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari doan ematea proposatu da, bertan alokairuko 25 etxebizitza sozial eraiki ditzan. Horretarako beharrezkoa izango da indarrean dagoen plan orokorra aldatzea.

Plangintzako aholku batzordean proposamenaren berri eman zen.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu, baina Eusko Jaurlaritzak funtsezkoak ez diren aldaketa batzuk proposatu zituen.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak zein Ondareko udal zerbitzuak espedienteari buruzko txostenak egin dituzte.

Lurraldeko udal informazio-batzordean eztabaidatu ondoren, bertan dauden 20 zinegotziek alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren quorum-arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Onartzea Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Zarauzko Udalaren artean sinatu beharreko hirigintzako lankidetzahitzarmena, Lanpardo kalea 1eko partzelan (7 area –OD Azken Portu–) alokairuko etxebizitza sozialak eraikitzeke.

Ekainaren 4an argitaratutako hirigintza-hitzarmenaren testua da onartutakoa, Eusko Jaurlaritzak proposatutako aldaketak sartuta.

Alkatetzak edukiko du hitzarmena sinatzeko ahalmena, Udalaren ordezkartzan.

**LANKIDETZA HITZARMENA,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRA,
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA,
ETA
ZARAUZKO UDALA**

**GAIA:
BABES SOZIALEKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ZARAUTZ UDAL-MUGARTEAN,
AZKEN PORTU 7 EREMUAN.**

Vitoria-Gasteiz, 2018koren ..an,

BILDU DIRA

ALDE BATETIK, Ignacio Maria ARRIOLA LÓPEZ jauna, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua.

ETA BESTETIK, Xabier TXURRUKA FERNANDEZ jauna, Zarauzko alkate-udalburua.

BERTARATU DIRA

Lehen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu gisa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari-lanetan, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2018koren ...an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.

Eta bigarrena, Zarauzko alkate-udalburu gisa, Udalaren ordezkari-lanetan, Udalbatzak 2018korenan izandako bilkuran hartutako erabakiaren indarrez egintza honetarako baimendua.

Agertutako bi alderdiek elkarri aitortu diote Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetzeko beharrezkoa den legezko gaitasun nahikoa eta, horretarako, honako hau:

AZALDU DUTE

LEHENA.- Euskadiren Autonomia Estatutuaren 10.31 artikulua honako hau zehazten du: Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du lurraldearen eta itsasertzaren antolamenduaren, hirigintzaren eta etxebizitzaren arloetan.

BIGARRENA.- Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 2. artikuluan adierazten dira Euskadiko etxebizitza-politikaren printzipio gidariak, besteak beste, honako hauek:

- 1.- Etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko eskubidea bermatzeko, lankidetzan eta koordinatuta aritzea botere publiko guztiak, Estatuko Administrazio orokorraren mendeko organoak eta EAEko sektore publikoa barne, zeina osatzen baitute Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, foru-aldundiek, toki-erakundeak eta haien mendeko titulartasun publikoko erakunde guztiak.
- 2.- Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubidearen eraginkortasunaren inguruko ekimenetan jarduketa publikoak eta pribatuak koherenteak izatea.
- 3.- Etxebizitzari eta zuzkidura-bizitokiei buruzko politika publikoak planifikatu eta programatzea, kontuan hartuta alokairuko etxebizitza dela Konstituzioan ezarritako etxebizitza-eskubideari erantzuteko funtsezko tresna.
- 4.- Etxebizitza edo bizitoki babestu bat izateko eskubidea erabiltzerakoan edozein diskriminazio desagerraraztea, kolektibo ahulen aldeko ekintza positiboko neurriak ezarrita eta jokabide diskriminatzaileak zigortuta.
- 5.- Lurralde-kohesioa egotea sustapen- eta birgaikuntza-neurrien aurreikuspen eta aplikazioaren banaketa orekatuan, eta, aldi berean, etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren eskaintza zabal eta behar bestekoa lortzea.
- 6.- Herritarrek etxebizitzari eta zuzkidura-bizitokiei buruzko politika publikoak formulatzeko prozesuan benetan parte hartzea eta lankidetzan jardutea, baita bizitegiak sustatu, eraiki, kontserbatu, birgaitu, berroneratu eta berritzen edo horien administrazio edo kudeaketako zereginetan aritzen diren izaera sozialeko eta irabazi-asmorik gabeko entitateek ere.
- 7.- Etxebizitza babestu eta zuzkidura-bizitoki berrien eraikuntzako esku-hartze guztiak nahiz etxebizitza horien birgaitze- edo eraberritze-jarduketak bizigarritasun-, funtzionaltasun- eta segurtasun-baldintzak hobetzera bideratzea, arreta berezia jarrita irisgarritasunean, baliabide naturalen erabilera eraginkorrean eta gizarte-, finantza- eta ingurumen-jasangarritasunean, diseinu unibertsalaren printzipioei jarraikiz.
- 8.- Jarduera produktiboak eta pertsonen bizitza indibiduala eta familiara erantzunkidetasunez bateratzen lagunduko duen hiri-planifikazio bat bultzatzea, erantzunkidetasunezko gizarte-antolaketa bat erraztuz.
- 9.- Eraikinak, etxebizitzak eta haien ingurune urbanizatua gizarte-erantzukizunez erabil daitezkeen bultzatzea, duten funtzio soziala errespetatu eta betetzeko.

10.- Etxebizitzaren arloan planifikazio bat ezarri, garatu eta exekutatzea herritarren premia errealen eta haien egoera pertsonal, sozial, ekonomiko eta laboralen arabera.

Hori bermatu ahal izateko, lurzoruaren kontrol publiko arduratsu eta eraginkorra lortu behar da, eta kontrol hori lurzoru publikoa eskuratu eta kudeatzeko ekintza irmoarekin osatu beharko da. Horregatik, botere publikoek –kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailak eta Zarauzko Udalak– elkarrekin esku hartu behar dute –are gehiago, horretara behartuta daude–, babes ofizialeko beharrezko etxebizitzak egitea ahalbidetzen duten baldintzak sortzearen eta beharrezkoa den lurzoru-ondare publikoa osatzearen, betiere espekulazioa eragozteari begira.

Era berean, bi erakunde publiko horiek aurreko idatz-zatian adierazitako alderdietan batera eta koordinatuta egin beharrek jarduna baieztatzeko eta berresteko, Autonomia Erkidegoak alde batetik, eta Toki Erakundeek bestetik, elkarren arteko harremanetan beren zereginak eraginkortasunez betetzeko behar duten lankidetzeta eta laguntza aktiboa eskaini beharko diote elkarri, nork bere esparruan.

HIRUGARRENA.- Zarauzko Udalak, 2008ko otsailaren 13an onespena eman zion Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari. Planak jasotakoaren arabera, 7. Eremua-Azken Portu- hiri lurzoru finkatutzat sailkatzen da eta bizitegi-erabilera eta azpiegitura eta komunikazioen sistema orokorraren kalifikazio orokorra du.

7. Eremuak-Azken Portu- 99.910 m²-ko azalera du. Inguru horretan, erditik iparralderako zatian, gutxi gorabehera, +5,00 eta 6,50 koten artean kokatutako lurzoru lauak daude, eta erditik hegoalderako zatian lurrak aldapan daude, iparralderantz orientatutako mendi-mazelan. Zati horretan lurrak gorantz egiten du, hego-hegomendebaldeko ertzean +25,00 kotara heldu arte.

Udal plangintzak zehaztutakoaren arabera eremuan berezko erabilera etxebizitza kolektiboa da.

Auzoak dentsitate handia duen arren, ez du ekipamendu garrantzitsurik. Bertan aurki ditzakegun ekipamenduen artean, Lanpardo kalearen ondoan, Hegoaldean dauden hezkuntza-arloko ekipamenduak bakarrik aipa ditzakegu.

Bertan dauden ekipamenduko eraikuntzen eta lursailen multzoa (Lanpardo kalea 1 eta 3) irakaskuntza-ekipamendu gisa finkatzen da.

Lursail multzo horretan 22899 zenbakiko erregistro finka dago, 3250 m²-ko azalera duena, eta bere hegoaldean erabiltzen ez den eraikin bat dago.

LAUGARRENA.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 16. artikulua adierazten duenez, Udalaren hirigintza-plangintzaren bidez, etxebizitzak babes publikoko araubide bati atxikita eraikitzeo kalifikatu ahal izango dira lursailak. Betiere, legearen 80. artikuluan aurreikusita dauden gutxieneko estandarrak eta kopuruak betetzeko behar den lurzoru-kalifikazioa egin beharko da gutxienez. Kalifikazio-egintzan, lurzoru horretarako izendatutako babes mota zehaztu beharko du hirigintza-antolamenduak.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 19. artikulua adierazten duenez, Administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-esparruan, sustatu egingo dituzte babes publikoko etxebizitzak, halako jarduketak bultzatzeko neurri ekonomiko, fiskal, hirigintzako eta bestelakoen bidez.

BOSGARRENA.- Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak lurzoru-ondare publikoa arautzen du, eta, horren arabera, gainerako ondaretik banandua eta independentea izango den ondareak osatuko du lurzoru-ondare publikoa, eta etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak kudeatuko du, helburu hauek betetzearen, besteak beste:

- a) Lurzorua edo bizitegitarako hirigintza-eraikigarritasuna eskuratzea, etxebizitzak, bizitokiak, lokalak eta eranskinak sustatzeko edo eraikitzeo.
- b) Eraikin babestu horiek eta jarduketari berari lotutako ekipamendu publikoak sustatzea edo eraikitzea.

Helburu horiek betetzeko, Zarauzko Udalak doan lagako dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Zarauzko 7 Eremuan -Azken Portu- dagoen 22899 finka.

Etxebizitzen gaineko indarreko araudiak ez duenez aurreikusten aipatu Lurzoru Ondare Publikoa osatzen duten ondasunak doan eskuratzeko kasu edo prozedurarik, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko den azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak horretarako xedatutakoa beteko da.

Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuaren 38. artikulua arabera, doan lagatutako ondasunak eskuratzeko direnean, haien titulartasuna dagokion sailak onartu beharko ditu, Gobernu Kontseiluak baimena eman ondoren, baldin eta, besteak beste, eskuratzeko baldintza edo erabilera-konpromiso bereziren bat badakar berekin eta baldintza edo erabilera

horrek gasturen bat badakar, eta organo eskudunak, kasu honetan bezala, doako lagapena onartzeko interes publikoko arrazoiak ikusi baditu.

Bien interesak, konpromisoak eta ekarpenak egoki bideratzeko, bi alderdiek Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetu dute honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA: Lankidetzaren Hitzarmen honen helburua da Zarauzko udal-mugardean babes sozialeko etxebizitzaren sustapena ahalbidetzea, 7 eremuan -Azken Portun-.

BIGARRENA: Zarauzko Udalak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak adostu dute 7 eremuan -Azken Portun- dagoen 22899 erregistro finkaren zati bat Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak babes sozialeko alokatzeko etxebizitzaren sustapenerako erabiltzea.

Zarauzko Udalak 22899 partzelaren zati baten segregazioa egiteko hitza ematen du, hain zuzen ere partzelaren hegoaldea eta babes sozialeko etxebizitzak egiteko dena.

Segregazioa egin aurretik udal plangintzaren aldaketa bat onartu beharko da segregazio gai den eta Hitzarmen honen helburu diren babes sozialeko etxebizitzaren sustapena burutu nahi den partzelan etxebizitzarako erabilera ahalbidetzeko.

Dagokion eskritura publikoaren bidez segregazioa formalizatua dagoenean, Zarauzko Udalak segregatuko den partzelaren kargarik gabeko lagapena egiteko hitza ematen du, partzela horretan dagoen eraikinarekin batera, doako lagapena egiteko dagokion akordioaren bidez.

Hitzarmen honetan zehaztutako ondare-eragiketa burutzeko dagokion baimena lortzea izango da baldintza, hala ezartzen baitu azaroaren 6ko 2/2007ko Legegintza Dekretu bidez onetsitako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu batekin.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, bere aldetik, hitz ematen du lagapen hori Gobernu Kontseiluak onartzeko tramitazioa egingo duela.

Klausula honetan aurreikusitako ondare-eragiketa eskritura publikoan formalizatuko da, adierazitako doako lagapena onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiaren egunetik zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epearen barruan.

HIRUGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hurrengo konpromisoak hartu ditu:

- Lagapen gai den partzelan dagoen eraikina eraisteko beharrezkoak diren agiri teknikoak idaztea, lagapena formalizatu den unetik hasi eta 6 hilabeteko epearen barruan.
- Babes sozialeko etxebizitzaren eta horien urbanizazioa burutzeko beharrezkoak diren agiri teknikoak idaztea, lagapena formalizatu den unetik hasi eta 6 hilabeteko epearen barruan.
- Babes sozialeko etxebizitzaren eta horien urbanizazio osagarria egiteko obrak kontratatzea eta exekutzea.
- Babes sozialeko etxebizitzaren eraikinean sortutako behe solairuan dagoen lokalaren erabilera Zarauzko Udalararen dohainik lagatzea. Lagapen horrek 75 urteko iraupena izango du, udal agintaritzak eskatu eta gero onartuko da eta ekipamendu erabilerarako izango da. Kasu honetan lokala egokitu gabe lagako da.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak zin egiten du zuzkidura-bizitokiekin lotutako eraikuntza- eta urbanizazio-lanak 4 urteko epean amaituko dituela, doako lagapena eskritura publikoan formalizatzen denetik aurrera. Hala ere, behar bezala justifikatutako arrazoiak badaude, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, betiere Hitzarmenaren indarraldia gainditu gabe.

Aipatutako jardueretatik ondorioztatzen diren gastuak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ordainduko ditu.

Lankidetzaren Hitzarmen honetan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak bere gain hartu dituen konpromiso guztiak alde aurretik bidezko aurrekontu-izendapenak egin izanaren eta egonkortasuna eta finantza-iraunkortasunari buruzko printzipioak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoak dituen erabilgarrien baldintzapean egongo dira.

LAUGARRENA: Zarauzko Udalak hurrengo konpromisoak hartu ditu:

- Zarauzko 7. Eremuan-Azken Portu- dagoen 22899 finkaren lagako den zatian etxebizitza erabilera ahalbidetuko duen hirigintza planeamendua aldatzeko beharrezkoak diren agiriak idatzi, izapidetu eta onartzea. Aldaketa horrek etxebizitza erabilerarako hurrengo datuak aurreikusi beharko lituzke gutxi gorabehera:
 - Azalera: 1.860 m2
 - Eraikigarritasuna: 2.500 m2
 - Eraikin-profila: BS+ 4 sestra gainetik
 - Etxebizitzen kopurua: 25
- 22899 finkaren hegoaldean 1860 m2-ko lursail berria sortzeko finkaren segregazioa izapidetu eta onartu. Hain zuzen, banaketa gai izango da Hitzarmen honen helburu den babes sozialeko etxebizitzak egiteko erabiliko den eraikina dagoen finkaren zatia.
- Obrak burutzeko beharrezkoak diren udal lizentziak lau hilabeteko epearen barruan izapidetzea, etxebizitza arloan eskumena duen organoak aurkeztu duenetik hasita.
- Partzelari eta bertan dagoen eraikinari dagozkien segurtasun eta mantentze neurriak hartzea, babes sozialeko etxebizitzak eraikitzeko lanei hasiera ematen zaien bitartean.

BOSGARRENA: Zarauzko Udalak bere gain hartuko ditu hirigintza agirien izapidetzeak eta onarpenak eta 7. Eremuan-Azken Portu- dagoen 22899 finkaren banatzeak sortutako gastuak, eskritura egiteak eta Jabetza Erregistroan inskribatzeak sortutakoak barne direla.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ordaindu beharko ditu 7. Eremuan- Azken Portu- dagoen 22899 finkatik banandutako zatia doan lagatzearen ziozko eskuraketari lotutako ondare-eragiketa Jabetza Erregistroan inskribatzearen eta eskriturak egitearen ondoriozko gastuak, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga salbu.

SEIGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak konpromisoa hartu du babes sozialeko etxebizitzen sustapenean interesa duen udalerrri bakarra Zarautz dela deklaratzeko. Udalerrri horretako herritarrak izango dira lehentasunezko hartzaileak.

Hala ere Zarauzko Udalak Programa horretan barne hartutako babes sozialeko etxebizitza zehatzen hautaketa-prozedura horretatik salbu egotea proposa dezake, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak konpromisoa hartzen du horien esleipen berezitia egiteko, baldin eta udal jarduera urbanistikoen eraginpean dauden pertsonen faboretan egiten bada.

Esleitu ez dela-eta, etxebizitzaren bat soberan geratzen bada, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak zehaztuko du dagokion Eginkizun-Arloko zer udalerrri eta/edo pertsona dauden horretan interesatuta, hartarako emandako Aginduaren bidez.

ZAZPIGARRENA: Zarauzko Udalak lagapen gai den partzelan dagoen eraikinaren eraisketa lanei eta babes sozialeko etxebizitzak eraikitzeko obrei dagokien karga-tasari 5. UDAL ORDENANTZAN ezarritako % 95eko hobaria aplikatuko dio. Hoberi hori etxebizitza sozial eta alokatzeko diren babes ofizialeko etxebizitzen sustapenen kasuan aplikatzen da.

ZORTZIGARRENA: Zarauzko Udalak ez dio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari, administrazio publikoa den aldetik, inolako finantza-bermerik jartzeko eskatuko, aplikatu beharreko araudian eska daitezkeen fidantza edo bermeak osatzeko, batez ere obrak egitean ukitu daitezkeen udal-agintaritzaren titulartasuneko ondasun higiezin edo higigarriak ordezkatzearekin edo hondakinak kudeatzearekin lotuta.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, zin egiten du hondakinak horien kudeaketa arautzen duten printzipioen arabera kudeatuko dituela, hau da, horiek baloratzeari emango diola lehentasuna (ezabatzeari bainoago), eta neurri egokiak hartuko dituela obraren ondorioz sor daitezkeen eragina murrizteko, eta, edonola ere, obraren ondorioak jasan ditzaketan udal-titulartasuneko ondasunak beren hasierako egoeran utziko dituela bermatzeko.

BEDERATZIGARRENA: Bi Herri Administrazioek beharrezkotzat hartzen dute Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratzea. Batzorde hori erakunde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute, eta bere eginkizunak honako hauek izango dira: ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak gauzaraztea, horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea, zuzkidura-bizitoki hauen sustapena egitean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea, eta, oro har, etorkizunean sor daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

Aipatutako Jarraipen Batzorde hori lau kidez osatuko da. Alderdi bakoitzak bi proposatuko ditu.

Hitzarmen honetan aurreikusi ez bada, Jarraipen Batzordearen funtzionamendua Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluko II. Kapituluko 3. Sekzioan ezarritakoari jarraituko dio.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta, beraz, berau interpretatu, aplikatu eta betearaztearekin edo beronen ondorioekin lotuta sor daitezkeen alderdi guztiak ezagutzea administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokio, aurreko klausulan aurreikusitako bidea amaitu denean.

Hitzarmen hau kontratu publikoen indarrean dagoen legediaren aplikazio eremutik kanpo geratuko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egin zen Espainiako ordenamendu juridikora) 6. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, lege horren printzipioak aplikatu ahalko dira egon daitezkeen zalantzak edo atzeman daitezkeen hutsuneak ebazteko.

HAMAİKAGARRENA: Lankidetzeta-hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, hura sinatzen denetik aurrera. Aurreko atalean aipatutako epea amaitu aurretiko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea.

HAMABIGARRENA: Hitzarmen hau edozein unetan berrikusi ahal izango da alderdietako batek hala eskatuta eta, hala badagokio, aldatu egingo da sinatzaileen aho batezko erabakiaren bidez, hitzarmenari dagokion gehigarria sinatuz.

HAMAHIRUGARRENA: Agiri honetan jasotako betebeharrak ez betetzea hitzarmena deuseztatzeko arrazoia izango da, eta aldeak lehengo egoera juridikora itzuliko dira. Era berean, bai beste aldeari bai uste oneko besteri eragin ahal izan zaizkien kalte eta galerak ordaindu beharko ditu aipatutako deuseztapena eragiten duenak.

Halaber, hitzarmen hau bertan behera uzteko arrazoiak izango dira bere izaeraren ondorioz indarrean dagoen legedian aurreikusten direnak.

Hala eta guztiz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hitzarmen honetan aurreikusitako sustapenean atzera egin ahalko du, aurreko paragrafoan aurreikusitako kalte-ordaina ordaindu behar izanik gabe, baldin eta, sortzen diren arrazoiaren ondorioz (adibidez, hirugarren pertsonen eskuraketaren xede diren ondasunak okupatzearen ondorioz), hori gauzatzea bideraezina bada.

Eraikina ez bada Hitzarmen honetako Hirugarren klausulan jasotzen den epean eraikitzen edo eraiki arren ez bazaio babes sozialeko etxebizitzaren erabilerari eusten hurrengo 30 urteetan, Udalak lagapena bertan behera utzi ahalko du, eta, ondorioz, dagozkion izapideak egin ondoren, lurzatia eta, hala badagokio, eraikuntza Udalarari itzultzea erabakiko da.

Eta adostasuna eta uste ona erakusteko, dokumentu hau izenpetu dute lau aletan, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

9.- UDAL BITARTEKO FUNTZIONARIO BAT IZENDATZEKO BATERAGARRITASUNA ONARTZEKO ESKAERA.

2018I3990046 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Zarauzko Udaleko Turismo, Ekitaldi eta Jaietako Departamentuak, urtero bezala, pertsona bat kontratatze beharra du uztailean eta abuztuan. Goi-denboraldiko

bi hilabete horietako ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan informazio zerbitzuan ditugun beharrak beteko ditu pertsona horrek, errefortzu gisa. Azpimarratu beharra dago bulegoak oso ordutegi zabala duela, eta data horietan asko igotzen dela informazioa eskatzera gerturatzen den erabiltzaile kopurua. Beraz, harrera zerbitzuan ezinbestekoa da gutxienez bi pertsona goatea txanda bakoitzean.

Turismo, Ekitaldi eta Jaietako Departamentuak proposatu zuen Turismoko Laguntzaileen lan-poltsa erabiltzea (2016ko maiatzean onartutakoa). Deiak lan-poltsaren hurrenkeraren arabera egin ziren, eta Izaskun de Miguel andrea agertu zen lana egiteko prest, baina adierazi zuen DBHko irakaslea zela, eta 11 orduko kontratua zuela indarrean irakaskuntzan abuztuaren 31 arte.

Administrazio publikoko langileen bateragarritasunaren legeak honako hau dio (53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri-administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunen araubideari buruzkoa):

“16.4 de la Ley 53/84: “podrá reconocerse compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de complementos específicos, o conceptos equiparables, cuya cuantía no supere el 30% de su retribución básica, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad” (añadido por el art, 34 de la Ley 31/1991, de 30 de diciembre).”

Zarauzko Udalaren kasuan, eta eskaintzen den C2 taldeko lanpostuan, oinarrizko soldata 611,31 eurokoa da, eta berariazko osagarria 1.296,83 eurokoa. Hau da, oinarrizko soldataren bikoitza (bateragarritasuna baimendu ahal izateko berariazko osagarriak ezin du 183,39 euro baino gehiagokoa izan).

Bestalde, 53/1984 Legearen 9. artikulua arabera:

“La autorización o denegación de compatibilidad para un segundo puesto o actividad del sector público corresponde al Ministerio de la Presidencia, a propuesta de la Subsecretaría del Departamento correspondiente, al órgano competente de la Comunidad Autónoma o al Pleno de la Corporación Local a que figure adscrito el puesto principal, previo informe, en su caso, de los Directores de los Organismos, Entes y Empresas públicas.”

Legeak dioena Izaskun de Miguel izangaiari jakinarazi eta gero, lehenik eta behin, uztailearen 5eko idatziaren bidez, berariazko osagarriaren murrizpena eskatu zuen, hain zuzen ere % 30etik gorako kopuruan, eta, gero, 13an eta 19an erregistratutako idatzien bidez atzera bota zuen murrizpen-eskaera hura.

Hori guztia kontuan harturik, Udaltzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

IZASKUN DE MIGUEL BARCO andreari bateragarritasuna ukatzea sektore pribatuan bigarren lanpostu batean jarduteko eta, hala, Udal honetako bitarteko funtzionario izendatu ahal izateko, ez dituelako betetzen bateragarritasunari buruz legeak eskatzen dituen baldintzak.”

Une honetan **kontu-hartzaile** andrea bilkuratik joan da

10.- ESKARI-GALDERAK

Gai-zerrendako puntu honetan, aurreko bilkuretan egindako galdera hauei erantzun diete zinegotziek:

- Astiko kantinarako hartuneak.
- Kartelak, pintadak, pankartak.
- Herritarren segurtasuneko ofizial arduradunaren lanpostuari dagokion apelazio errekurtsua.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, iluntzeko zortzietan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.